


Korapilatutako fotoiak sortzeko teknika eraginkor bat garatu dute



Ezkerrean, fotoi korapilatuen iturria: indiozko puntu kuantiko bat nanokable erdieroale batean txertatua. Eskuinean, korapilatutako fotoi-pareak nanokabletik nola ateratzen diren erakusten duen irudikapena. ARG.: Waterloo Unibertsitatea.

Kuantikoki korapilatutako fotoi-pare ia perfektuak eraginkortasun handiz sortzeko teknika bat garatu dute. Ikertzaileek azpimarratu dutenez, aurrerapauso handia da komunikazio kuantikoaren arloan, oso baliagarria izan baitaiteke, besteak beste, segurtasun handiko komunikazioetarako.

Ikertzaileek, korapilatze kuantikoa eta puntu kuantikoak konbinatuz, nabarmen hobetu dute fotoi korapilatuak sortzeko prozesua. Nanokable batean puntu kuantiko erdieroaleak sartuta, korapilatutako fotoi-pareak ekoizteko iturri eraginkor bat lortu dute. Iturri hori laserrekin kitzikatuta sortzen dira fotoi korapilatuak; korapilatzea ia perfektua da, eta eraginkortasuna orain arte lortutakoa baino 65 aldiz handiagoa. ●

Odoleko lipidoak COVID iraunkorraren biomarkatzaileak izan daitezke

COVID iraunkorra duten 147 pazienteren plasman ia 400 lipido desberdin aztertuta, CiQS zentroko ikertzaileak gai izan dira berariazko asaldurak identifikatzeko, eta haiek COVID iraunkorraren ezaugarri jakinekin lotzeko; zehazki, hanturarekin eta erantzun immunitario iraunkorarekin. Gainera, lipido horietako batzuk biomarkatzaile gisa erabili daitezkeela ere baieztatu dute.

Ikerketa egiteko, lipidomikako teknikak eta adimen artifiziala erabili dituzte, eta Espainiako beste zentro batzuetako ikertzaileek ere parte hartu dute; tartean, EHUkoek. Adierazi dutenez, emaitza horiek funtsezkoak dira COVID iraunkorra hobeto ezagutzeko. Izan ere, COVID-19ari buruz egin diren ikerketa gehienak gaitzaren fase akutuz egin dira, eta COVID iraunkorra nahiko ezezaguna da oraindik, nahiz eta jende askori eragiten dion: infektatuen % 10-20 ez da guztiz sendatzen eta sintoma iraunkorrak garatzen ditu. ●



Odoleko lipidoak COVID iraunkorraren biomarkatzaile izan daitezkeela frogatu dute iCiQUS zentroak gidatutako ikerketa batean. ARG.: Artixibokoa.